



4.7. DIRULAGUNTZA LERROA: IRAKURKETA EUSKARAZ SUSTATZEKO KANPAINA "LIBURUA OPARI"- 2023. OINARRI ESPEZIFIKOAK

1.- Dirulaguntzaren xedea

Oinarri hauen helburua euskarazko irakurketa sustatzeko bonuen oinarri arautzaileak ezartzea da.

Horretarako, Errenteriako liburu-dendetan (eskatzen dutenak) euskarazko edozein liburu edo ipuin erosteko dirulaguntzak emango dira.

2.- Dirulaguntza zein aurrekontu-kredituri egozten zaion

Dirulaguntza honetara bideratutako zenbateko guztia 5.000,00 € da, 2024ko aurrekontu-partidaren kontura:

Egoki den kreditu aldaketaren bitartez kopurua handituko balitz, deialdi honi egozgarria izango da.

Dirulaguntzaren zenbatekoa ezingo da diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa izan, ez bakarrik, ez beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera.

3.- Epea

Errenteriako Udalak euskarazko liburu eta ipuinen erosketa diruz lagunduko du 2023ko abenduaren 1etik eta 2024ko urtarrilaren 5era bitartean.

4.- Onuradunak

Deskontu hauen onuradun izango dira bonu hauetako bat deialdi honetara atxikitutako Errenteriako edozein dendatan euskarazko liburu edo ipuin bat erosteko aurkezten duten guztiak.

5.- Diruz lagun daitezkeen gastuak

Deialdi honen ondorioetarako, diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko da % 20ko hobaria deialdi honi atxikitako edozein liburu-dendatan euskarazko literatura-liburuak erosteagatik.

6.- Bonuak eskuratzea

Bonuak herriko ikastetxeetan eta parte hartuko duten dendetan banatuko dira eta Udal Hizkuntza Politika sailaren egoitzan (Merkatuzar) egongo dira eskuragarri



7.- Atxikitutako entitateak

Atxikitako erakundetzat hartuko dira oinarri hauetan araututako bonuen bidez euskarazko liburuak edo ipuinak erosteko aukera ematen duten Errenteriako txikizkako establezimendu guztiak

Udalarekin zorrak dituzten establezimenduak ezin izango dira atxiki, zorra zatikatzea eskatu eta eman ez bazaie.

Atxikitutako establezimenduen zerrenda, zabalkundea eta difusioa sustatze aldera, Errenteriako Udalak bizi.errenteria.eus web-orrian argitaratuko du.

Era berean, atxikitutako establezimenduek eskura izango dute deialdiari buruzko publizitate-materiala, establezimenduan ikusgai jartzeko.

Atxikitzeko epea urriaren 30etik azaroaren 10era izango da.

8.- Atxikitzeko eskaera burutzeko prozedura

Atxikitzeko eskabideak honela aurkeztu daitezke:

- Zerbitzu telematikoetan Errenteriako Udalaren erregistro elektronikoaren bidez
- ZU! zerbitzuan edo 39/2015 Legearen 16.4 artikulua aipatzen duen edozein erregistrotan.

Edozein zalantza argitzeko, 010 edo 943 44 96 13 zenbakira deitu beharko da.

Atxikitzeko eskaera tramitatutakoan, Errenteriako Udalak bidaliko dizkie deialdiaren publizitate-materialak, bai ere kanpainaren informazio zabalagoa.

Atxikitzeko eskaera egiteko epea zabalik egongo da deialdiak irauten duen bitartean, Errenteriako Udalaren webgunean argitaratzen denetik bonuen balidazio eta justifikazio epea amaitzen den arte.

9.- Atxikitzeko aurkeztu beharreko dokumentazioa

Establezimendu edo jarduerak honako dokumentazioa aurkeztu beharko du:

- a) Atxikitzeko eskabidearen inprimakia
- b) Pertsona edo entitate eskatzailearen nortasuna egiaztatzen duen agiriaren fotokopia (IFZ, eraketa-eskiriturak, dagokion erregistroak emandako ziurtagiria, etab.). Ez dute dokumentazio hau aurkeztu behar aurreko deialdietan parte hartu duten eskatzaileek.
- c) Bere izenean dagoen kontu korrante baten titulartasuna ziurtatzeko agiria.



d) Errenteriako Udalak , NISAE datuen bitartekaritza plataforma bidez, deialdian parte hartzeko ondoko datuak egiaztatuko ditu. Aurka eginez gero, deialdian eskatutako ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu:

- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra - Gizarte Segurantzarekiko betebeharren ordainketa egunean izatearen kontsulta

- Foru-ogasunak - Zerga-betebeharren ordainketa egunean izatearen kontsulta

10.- Aplikatutako hobarien justifikazioa

Kanpaina amaitutakoan, atxikitako establezimenduak Udal Hizkuntza Politikarako Sailera bidali beharko du, posta elektronikoz (euskara@errenteria.eus), excel orri bat, liburuen izenburuekin, tiket edo faktura zenbakiarekin, deskontua egin aurreko zenbateko osoarekin eta deskontuaren zenbatekoarekin. Eta sailera gutun-azal bat eraman beharko dute, tiket/faktura bakoitzaren kopiarekin, bakoitzaren deskontu-bonuarekin batera.

Establezimendu batek udalarekin zorra badu, konpentsazio bat egingo da haren alde aitortutako kredituarekin.

Ez zaie inolako zenbatekorik ordainduko atxikita ez dauden establezimenduei, eta ez zaie itzuliko 3. puntuan ezarritako epetik kanpo egindako gastua.

Bonuak justifikatzeko epea urtarrilaren 31 arte izango da.

11.- Ordainketa

Dirulaguntzaren ordainketa Udal Hizkuntza Politikako zinegotzi delegatuak dirulaguntzak banatzeko behin betiko ebazpena eman ondoren egingo da. Ordainketa, dirulaguntza hori lortzeko adierazi zen xedea bete dela egiaztatuta ondoren egingo da aldi bakar batean, eskaeran adierazitako kontuan egingo den diru-sarrera bidez.

Ohar garrantzitsua: deialdi hau egin da ERREENTERIAKO UDALAK 2023 URTEAN DIRULAGUNTZAK EMATEA ARAUTZEKO OINARRI OROKORREI jarraiki. Hemen zehaztu gabeko gai orotarako oinarri horietara jo beharko da.